


DESATADURAS

Nerea Lekuona



Argitaratzailea / Edita:

Centro Cultural Montehermoso Kulturunea
Vitoria-Gasteizko Udala Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

Testuak / Textos:

Arturo /fito Rodríguez Bornaetxea

Diseinua eta maketazioa / Diseño y maquetación:

Nerea Lekuona

Argazkiak / Fotografías:

Jorge Salvador

Itzulpenak / Traducciones:

Udaleko Euskara Zerbitzua
Servicio de Euskera del Ayuntamiento

Imprimatzailea / Imprime:

Gráficas Dosbi

L.G. / D.L.:

LG G 00598-2020

ISBN:

978-84-96845-65-7

DESATADURAS

Nerea Lekuona

DESATADURAS, Nerea Lekuona **Arturo / fito Rodríguez Bornaetxea**

Dena lotuta?

Zenbait esaldi, irudi, testura, kolore eta abar gordeta gelditzen dira gure buruan, eta fikziozko hodeiak sortzen dituzte beren inguruan, oroitzapenak osatzea xede. Baliteke hori izatea “kontakizuna” (historikoa, soziala...) desira- eta istilu-objektu bihurtzearen arrazoiak: jakina da bapote estetiko edo esaldi likatsu batzuen transmisio menderatzaileak hartzaileak modelatu ditzakeela. Agian horregatik, egun -inoiz baino gehiago- borrokarako espazioa da memoria.

Ildo horretan, “trantsizio” deitutakoarekin lotuta egon den imaginarioak –ezarpen simbolikoko erregimen bihurtu arte (trantsitokrazia) berarekin lotua egon denak– euste-mekanismo gisa funtzionatzen jarraitzen du, eta horrek zaildu eta neutralizatu egiten ditu ausardi politikoa eta gure garaiarekiko konpromisoa.

Nerea Lekuonaren ustez, “ondo lotuta” dagoen guztiak hasieratik pizten ditu hainbat zalantza, eta zalantza horietan finkatzen ditu bere proiekturako deskonpresio-estrategia, astindua, keinu erradikala eta eragindako harridura, zein azkenean sormen-iturri bihurtzen den.

Hemen primeran datorkigu Walter Benjaminen esaldi bat: “historiari orrazia ilez kontra pasatzea”; baina ez heroi zapalduen historia epiko bati zentzua emateko –hau da, esaldiaren lehen zentzua bakarrik erabiltzea–, baizik eta historiaren norabide eta jarraitasunarekiko haustura gisa ulertzeko; aldi baterakotasun anitz bati historiak prozesu gisa dituen loturarik gabe ekiteko aukera gisa ulertzeko, gertaerak bere berezitasunekin ager daitezen.

Horrenbestez, erakusketa honi dagokionez, kontrara irakurtzea adierazgarriak ageriaraztea, sinboloak kizkurtzea eta erreferentzia ugari eragitea litzateke, iragana aurrez ezarritako amaierarik gabe irakurterik izan dadin gaur egun. Horrela, kontakizun homogeen eta lineal batetik bereizita, gertaerak bere testuinguruan berrinterpretatu litezke, eta denbora-kapsula bezala ulertu, izan daitekeen fluxu berri batean txertatzeko prest. Ez da magia edo utopia, arteari suposatzen zaion konpromiso urratzailea baizik.

Arestian adierazi bezala erakusketako materiala trantsizioaren imaginarioa bada, hasieratik bertatik nabaritzen dira loturak eta finkapenak, eta kendu egin behar dira edo, gutxienez, nahaste higieniko bat eragin behar zaie. Eta, egun, trantsizioaz aritzea gehiago denez politikaz aritzea historiaz baino, imaginario hori desegiteko material gisa aurkezten da, arte garaikideko tresnen bitartez aska daitekeen korapilo gisa (irudi-, hitz, esaldi- eta soinu-korapiloa). Politikaren esanahia saihesten ez duen arteaz aritzea.

Baina Nerea Lekuonaren lanak ez du garai hori epaitu edo berrikusi nahi; aitzitik, harremanak ezarri nahi ditu paketatze ofizialaren eta subjektibotasun berriak ekar ditzaketan bokazio estetikoko edo fikziozkoko proposamenen artean. Imaginario politikoen eta sozialen eraikuntza aztertu nahi da, kultura- eta ikus-ekoizpena zentzuaren sorreran eragiten duen elementu gisa txertatzeko, eta ez elementu pasibo gisa. Trantsizioaren inguruan ospakizun- eta amnesia-ikuspegi nagusitu da, eta horri buruzko ikuspegi kritikoa eskaini nahi du, batez ere, hartara pentsamoldeak, memoriak, borondateak, desioak eta emantzipatzeko proiektu kolektiboak ere aska daitezen.

DESATADURAS, de Nerea Lekuona **Arturo / fito Rodríguez Bornaetxea**

¿Todo atado?

Hay frases, imágenes, texturas, colores... que quedan en nuestra mente y producen en su derredor nubes de ficción destinadas a completar los recuerdos. Quizá sea esta la razón por la que “el relato” (histórico, social...) se ha convertido en un objeto de deseo y de conflicto: es sabido que una transmisión dominante de ciertos vapores estéticos o de enunciados pegajosos puede llegar a modelar a los sujetos receptores. Quizá por ello, la memoria es hoy -más que nunca- un espacio de lucha.

En este sentido, el imaginario que ha acompañado a la denominada “Transición” hasta convertirlo en un régimen de implantación simbólica (“transitocracia”), sigue funcionando como mecanismo de sujeción que dificulta y neutraliza la audacia política y el compromiso con nuestro tiempo.

Para Nerea Lekuona, todo lo que está “bien atado” presenta de partida ciertos interrogantes, y es precisamente en ese cuestionamiento donde establece para su proyecto una estrategia de descompresión, una sacudida, un gesto radical y un extrañamiento inducido que finalmente resulta ser su motor creativo.

Nos viene aquí “al pelo” tomar prestada la sentencia “pasarle a la historia el cepillo a contrapelo”, de Walter Benjamin, no tanto para dar sentido a una historia épica de héroes oprimidos, lo que significaría utilizar solo una primera capa de sentido de la frase, sino para entender dicho contra-cepillado como una ruptura de la dirección y de la continuidad histórica; para entender la operación como la posibilidad de abordar una temporalidad múltiple en la que emerjan los acontecimientos en su singularidad, sin las ataduras de la historia como proceso.

Así, la lectura a contrapelo supondría en este caso, para esta exposición, despeñar los significantes, rizar los símbolos y provocar una maraña de referencias para poder leer el pasado en el presente sin un desenlace preestablecido. De este modo los acontecimientos, independizados de un relato homogéneo y lineal, podrían ser reinterpretados en su contexto y concebidos como cápsulas de tiempo dispuestas para ser reinsertadas en un nuevo flujo de lo posible. No se trata de magia o de utopía, sino del compromiso transgresor que se le supone al arte, nada más y nada menos.

Si como venimos diciendo el material de trabajo para esta muestra no es otro que el imaginario latente de la Transición, lo que se percibe en primer término son ataduras y fijaciones que hay que despeñar o por lo menos someter a un desorden de carácter higiénico. Y dado que hablar de Transición hoy en día es hablar de política más que de historia, dicho imaginario se presenta en esta exposición como material de desguace, como un nudo (de imágenes, palabras, frases y sonidos) que es posible desatar con las herramientas de una práctica contemporánea del arte. De un arte que no elude el significado de lo político.

Pero el trabajo de Nerea Lekuona no trata de enjuiciar o de revisar este periodo, sino de establecer relaciones entre el empaquetado oficial y las propuestas de vocación estética o ficcional capaces de aportar nuevas subjetividades. Se trata más bien de analizar la construcción de imaginarios políticos y sociales para incorporar la producción cultural y visual no como un producto pasivo sino como un elemento activamente implicado en la producción de sentido. Se trata, sobre todo, de ofrecer una perspectiva crítica sobre la visión celebratoria y amnésica que ha prevalecido en relación a la Transición para desatar, también, las mentalidades, las memorias, las voluntades, los deseos y los proyectos colectivos de emancipación.

Askatzen

Artearen tresnak oharkabe pasa daitezke, teknikatik haratago baitago jokoan dagoena. Baina tresna horiek menperatzea funtsezkoa da proposamen artistikoak pertzepzio-, emozio edo pentsamendu-maila desberdinetan bilatzen duen errekerimendua lortzeko. Lan-prozesu honen, artearen, eraginkortasuna frogatuta geratzen da esperientzia sentikorra zeharkatzen duen ezagutza berria antzematean. Hortik aurrera bi aukera baino ez dugu: erronkari heldu edo utzi. Eta Lekuonak erakusten denaz haratago pentsatzeko gonbita egiten digu, izan ere, dakigun bezala, aurkatzeko dugun artelana norberarengan amaitzen baita beti. Itxaropen horrekin bizi gara, behintzat.

Egileak zehaztasun-tresna diskretuak –teknikoak, pertzepzio- edo kontzeptu-tresnak – erabiltzen ditu erakusketan. Abstrakzio-ariketa zorrotza egitera eta jarrera-hartzera gonbidatzen gaitu, ilez kontra orrazteak dakarren laztasuna duen jarrera hartzera.

Aretoetan jarritako kolorezko paper handietako hitz eta esaldi bakoitza beste elementu batzuekin batera zabaltzen da espazioan zehar, guztien artean instalazioa osatuz. Instalazioetako bakoitza hurrengoari lotzen zaio, eta hartara, esanahi ugariko testu zabaldu bat sortzen da, gela bakoitzeko eragiketara sintaktikoei esker. Hortaz, ibilbide bat dago, pasabide lasai eta garbi bat gure egungo egoerarentz, baina inoiz ez amaiera bakarria. Guztia gure erantzukizunaren menpe dago berriz ere.

“Desataduras” lanean batera ageri dira idazketa masaje gisa, eskuz idatzitako testuak, lerroak bistan, izaera piktorikoa, alde soziologikoa, plangintza eta esku-hartzea. Artxiboa (memoria mugimenduan), kolorea (areto bakoitzaren tonua eta argitasuna), grafia (jokaldiaren erdian, eta bere zabale-ra osoan), jolas optikoak (islak, hausnaraketak, perspektibak), puntua eta kontrapuntua, besteak beste, artikulatu egiten dira instalazio bakoitzari eta instalazioen instalazioari –hau da, erakusketari– zentzua emateko.

“**Archipiélago de penínsulas**” (penintsula-artxipelagoa) da ibilbidearen hasiera. Kokaleku geografikoaren eta politikoaren haustura dugu abiaburu. Logika kartografikoa –inoiz baliozkoa izan bada– mila zatitan lehertu da. Inoiz artxipelago izaterik izango ez duen honetan –zeinek Saramagoren “harrizko baltsa” gogorarazten digun–, inposizio bezala ikusten dugu silueta baten (penintsula) nagusitasuna. Nonahi ageri da, hezkuntzan, imaginario nazionalaren erakuntzan, hainbat belaunaldiren oroimenean. Hemen, penintsula-mapak paper dibergentea izango du, buruan dagoen kokapen bate-na, eta kolore urdina izango da bertatik ihes egiteko bide bakarra. Mapa barrutik lehertu da, subjektu bakoitza diktaduraren urte ilunetan bezala. Urdina ahots-itsaso gisa aurkezten da, zerua urratzen duen beste itsasertzetara iristeko jaso eta handitu beharreko oihartzun gisa.

Dictadura (diktadura). Diktadurak gizabanakoa zeharkatzen duen moduaren arabera, isla eta itzal bezala agertzen da aldi berean. Nahasmen horren bitartez autoritarismoa nagusitzen da, eta norbanakoa bere irudian bertan irensten du. Areto honetako eszenaratzearen zentzua doitzean –non ezinezkoa baita distantziakidetasuna aurkitzea–, hormako erretratuek begira ditugula ikusten dugu. Ez dago etenik; pertsonaia baten eta bestearen aginduzko begiradak paraleloak dira beti, elkarren ondokoak, inoiz ona izan ez zen bigarren parte bat bezalakoa, serierik txarrenaren bigarren denboraldia bezalakoa.

Desatando

Las herramientas del arte pueden pasar inadvertidas porque lo que está en juego va más allá de la técnica. Pero el dominio de las herramientas resulta ser un aspecto fundamental para conseguir ese requerimiento o invocación que busca la propuesta artística en diferentes niveles de percepción, emoción o pensamiento. La eficacia de este proceso de trabajo que es el arte se demuestra cuando advertimos un conocimiento nuevo que atraviesa la experiencia sensible. A partir de ese momento solo podemos: o bien inhibirnos, o bien afrontar el reto. El desafío que se nos plantea no es más que una invitación a pensar más allá de lo que se muestra, porque, como sabemos, la obra de arte que enfrentamos siempre acaba en un x mismx. O al menos, en esa esperanza vivimos.

En esta exposición, la autora utiliza discretas herramientas de precisión, ya sean técnicas, perceptuales o conceptuales. Nos convoca a un ejercicio exigente de abstracción y a una toma de posición no exenta de la aspereza que provoca el cepillado a contrapelo.

Cada una de las palabras o frases que cubren los grandes papeles de color que invaden las salas se expanden en el espacio junto a otros elementos conformando una instalación. Cada una de las instalaciones se engarza con la siguiente dando lugar a un texto expandido recargado de significado gracias a las operaciones sintácticas que se producen en cada sala. Hay pues un recorrido, un pasaje sereno y despejado hacia nuestra circunstancia actual, pero nunca un solo desenlace. De nuevo, todo recae en nuestra propia responsabilidad.

La escritura como masaje, el trabajo manual, el trazo a la vista, la condición pictórica, la vertiente sociológica, la planificación y la intervención conviven en este trabajo que es “Desataduras”. Cuestiones como el archivo (la memoria en movimien-

to), el color (tono y luminosidad de cada sala), la grafía (en el centro de la jugada y en toda su extensión), los juegos ópticos (reflejos, reflexiones, perspectivas), así como el punto y el contrapunto, se articulan para dar sentido a cada instalación y a la instalación de instalaciones que es la exposición.

Con un “**Archipiélago de penínsulas**”, así comienza el recorrido. Partimos de una ruptura de la ubicación geográfica y política. La lógica cartográfica, si es que alguna vez tuvo validez, ha estallado en mil pedazos. En este archipiélago que nunca podrá serlo (y que nos recuerda a “la balsa de piedra” de Saramago), descubrimos la pregnancia de una silueta, la peninsular, como una imposición. Omnipresente en la educación, en la construcción de un imaginario nacional, en la memoria de varias generaciones, el mapa peninsular juega aquí un papel divergente, el de una ubicación mental de la que solo es posible escapar mediante el color azul. El mapa ha explotado desde dentro, al igual que cada sujeto durante los oscuros años de la dictadura. El azul se presenta como un mar de voces, como un eco rasgando el cielo que es preciso recoger y amplificar para llegar a otras orillas.

Dictadura. De tal modo atraviesa la dictadura al individuo que se presenta simultáneamente como reflejo y como sombra. Mediante esta confusión se impone el autoritarismo, engullendo al individuo en su propia imagen. Al afinar el sentido de la puesta en escena de esta sala, en la que es imposible encontrar una equidistancia, nos vemos observados por los retratos de la pared. No hay solución de continuidad, la mirada imperativa de un personaje y de otro son siempre paralelas, siempre contiguas, como una segunda parte que nunca fue buena, como la segunda temporada de la peor serie.

“Emozioen politika” deiturikoa egungo marketin politikoa ezarri baino askoz lehenago hasi zen. **“Puedo prometer y prometo”** “(promes egin dezaket eta promes egiten dut) epaiak eslogan sentimentalaren funtzioa zuen, eta “promes egindakoaren” hasiera zen, alderdien politikaren elementu pirotekniko nagusi gisa. Puntako orduan. Entzule gehien denean. Konfiantza osoa.

Areto honetan, ispilatze-makina gisa ageri dira bai esaldia zintzilik duen amaierarik gabeko erroilua bai idazketa jarraitzeko prest dagoen egitura -superegituraz hitz egin liteke-. Halaber, esaldi hori bera itzulingeru erraldoi gisa eta hormako zulo gisa aurkezteak, bere baitan infinituraino eta haratago jiraka jarraitu ahal duen status quo bat egiaztatzea baino ez da, normaltasunak ezarritako zirkulua zeharkatu ezean, behintzat.

“La calle es mía” (kalea nirea da) esaldiak oihartzun kriminalak ditu Gasteizen. Hemen, zapaltzen dugun lurzorura bakarrik eraman daiteke erreprezio hiltzailea bultzatu zuen agintariaren ahotsa. Kalea guztiona da, kalea gurea da. Hiri-espazioak erakunde-espazio hau hartzen du 1976ko martxoaren 3aren oroimenarekin zuzenean lotzeko. Bereziki konprometitutako ñabardura hartzen du erakusketak hemen. Ez da bertakoan “kokatutako” eta errotutako lana bakarrik, erakusketan zehar egindako hausnarketa guztiak lotu egiten baititu egun konpondu gabe dauden alderdiekin. Berriz ere, agerian geratzen da aipatutako aldi baterakotasun anitza, eta lagundu egiten digu “hura” “hau” gisa ulertzen, gertaera hura gaurkotasun gisa eta laido hura presente dagoen zerbait gisa.

Agian ez da iritsiera edo amaiera bat, baina erakusketako azken aretoak zuzeneko konfrontazioa proposatzen digu, erakusketak justifikatzeko. **“Todo está atado y bien atado”** (dena lotuta dago; ondo lotuta) esaldia **“demokrazia”** hitzarekin bizi da. Baina hitz higatu eta erabili hori, dagoeneko zentzua galdua duena, proiektatutako irudi distorsionatuen bitartez bakarrik irakur daiteke. Ez da ezer adierazgarriagorik.

“Dena lotuta dago; ondo lotuta”. Beti da askatzen hasteko unea.


La denominada “política de las emociones” comenzó mucho antes de la implantación del actual marketing político. La sentencia **“Puedo prometer y prometo”**, tenía la función de un eslogan de carácter sentimental y suponía el comienzo de “la promesa” como principal elemento pirotécnico de la política de partidos. En hora punta. Máxima audiencia. Total confianza.

En esta sala, el rollo sin fin del que cuelga la frase así como la estructura dispuesta para que continúe su escritura (cabría hablar aquí de “superestructura”), se presenta como una máquina de espejismos. De igual modo, la presentación de esta misma frase como circunloquio gigante, como agujero en la pared, no es más que la constatación de un status quo que puede seguir girando sobre sí mismo hasta el infinito y más allá. A menos que atravesemos el círculo impuesto de la normalidad.

En Vitoria-Gasteiz la frase **“La calle es mía”** tiene resonancias criminales. Aquí, la voz de la autoridad que alentó un represión asesina no puede más que llevarse al suelo que pisamos. La calle es de todos, la calle es nuestra. El espacio urbano ocupa esta espacio institucional para conectarlo directamente con la memoria del 3 de marzo de 1976. La propuesta expositiva adquiere aquí un matiz especialmente comprometido. No es solo una obra “situada” y arraigada en lo local, sino que conecta todas las reflexiones anteriores de la exposición a las cuestiones que siguen hoy sin resolverse. De nuevo, esa temporalidad múltiple de la que hablábamos se hace patente y nos permite entender “aquello” como “esto”, aquel suceso como nuestra actualidad, aquella ignominia como algo presente.

Quizá no se trate de una llegada o de un desenlace, pero la última sala de la muestra “Desataduras” nos propone una confrontación directa que justifica la exposición. La frase (enmarcada) **“Todo está atado y bien atado”** convive con **“Democracia”**. Pero esta palabra, desgastada, manoseada, desprovista ya de sentido, solo es legible a través de las imágenes distorsionadas que proyecta. Nada más elocuente.


“Todo está atado y bien atado”. Siempre es momento de comenzar a desatarlo.













Nerea Lekuona
www.nerealekuona.com

Nerea Lekuonaren (Gasteiz, 1976) lana beti da ingurunera egokitzeko, eta intuizioa eta zolitasuna lantzeko ariketa. Bere proposamenetan gurutzatu egiten dira irudiak, idazketa, ekintza, bitartekaritza eta egungo egoeraren analisia.

Alderdi grafiko eta bisualetatik abiatuta, bere proiektu artistikoan gero eta gehiago dira instalazio, esku-hartze eta formatu zabalduak, eta bertan, gure munduari buruzko ikuspegi kritiko batekin elkartzen ditu bere adierazpen-baliabide guztiak. Horrenbestez, bere lanak gaitasun tekniko ugari dakar berekin, non formatuen hibridazioak, hausnarketa politikoez, sentsibilizazio sozialak, abileziak eta ironiek arau eta ereduetatik aldentzera bultzatzen baitute.

Diseinu, zinema eta bideoaren arloko prestakuntzaren osagarri, lantegi eta ikastaroak egin ditu hainbat artistarekin: Esther Ferrer, Isidoro Valcárcel Medina, Daniel Canogar, Miguel Trillo eta Luis de la Alas, besteak beste.

Nerea Lekuonak Gasteizko Amarika Proiektuan (2008-2011) parte hartu zuen, Arabako Foru Aldundiaren erakusketa-espazioen kudeaketa alternatiboko esperientzian. 2018an, Artiumek kudeatutako “Itineraciones” deialdian, aukeratua izan zen berak egindako *Bajo el agua* lana. Bertan, Uribarri Ganboako urtegiko uraren azpian desagertutako herrien memoria lantzen du. Beste euskal artista batzuekin batera “APEIRON” Euskal bideo-artearen erakustaldian parte hartu zuen, Uruguaiako Montevideoko II. Festival Cervantino jaialdian. Madrilen, Artbanchel 2018 jaialdian parte hartu zuen, In June we trust espazioan.

2016an, Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro Museoko “Praxis” programara gonbidatu zuten. Urte horretan bertan, Centro de Holografía y Artes Dados Negros zentroko “Procesos” erakusketan parte hartu zuen.

Hainbat sari eta beka lortu ditu, eta horien artean azpimarratzekoak dira Montehermoso kulturuneko “Plusmarca Euskadi” (2014), eta Bitamine Faktoriaren EAS-RIO beka. Azken honen bitartez, Rio de Janeiroko Capacete artisten egoitzara bidaiatu zuen 2018an.

Horretaz gain, Bilboko Guggenheim museoan hainbat hezkuntza-programatan irakasle aritzen da 2018az geroztik. Gaur egun, Gasteizko arte garaikideari eskainitako Zas Kultur Espazio independentearen edukiak eta programak kudeatzen laguntzen du, baita Euskadiko eta Nafarroako artista hasi berrien “Inmersiones” urteko kongresuan ere.

Nerea Lekuona
www.nerealekuona.com

El trabajo de Nerea Lekuona (Vitoria-Gasteiz, 1976) es siempre un ejercicio de adaptación al medio, de intuición y perspicacia. En sus propuestas se cruza el tratamiento de las imágenes, la escritura, la acción, la mediación y el análisis de la circunstancia actual.

Partiendo de aspectos gráficos y visuales, en su proyecto artístico ha ido ganando terreno la instalación, la intervención y los formatos expandidos, en los que hace convivir todos sus recursos expresivos con una perspectiva crítica sobre el mundo que compartimos. Así, su trabajo supone todo un despliegue de competencias técnicas en el que la hibridación de formatos, las reflexiones políticas, la sensibilidad social, las astucias y las ironías invitan a un distanciamiento de las normas y las formas establecidas.

Su trayectoria formativa en diseño, cine y video se complementa con cursos y talleres junto a artistas como Esther Ferrer, Isidoro Valcárcel Medina, Daniel Canogar, Miguel Trillo y Luis de la Alas entre otros.

Nerea Lekuona participó en el Proyecto Amarika (2008-2011) de Gasteiz, experiencia de gestión alternativa de diferentes espacios expositivos de la Diputación Foral de Álava. En 2018 es seleccionada dentro de la convocatoria “Itineraciones” gestionada por Artium, con la intervención rural *Bajo el agua*, donde trabaja la memoria de los pueblos desaparecidos bajo el agua del embalse de Ullibarri-Gamboa. Toma parte junto a otras artistas vascas en la muestra “APEIRON: Muestra de videoarte vasco”, en el II Festival Cervantino de Montevideo, Uruguay. Participa en el festival “Artbanchel 2018”, Madrid, con una intervención en el espacio In June we trust.

En 2016 es invitada al programa “Praxis” del Centro Museo Vasco de Arte Contemporáneo Artium. Ese mismo año participa en la exposición Procesos en el Centro de Holografía y Artes Dados Negros.

Recibe premios y becas entre los que cabe destacar “Plusmarca Euskadi” (2014), del Centro Cultural Montehermoso y la beca EAS-RIO de Bitamine Factoria con la que viaja a la residencia de artistas Capacete, en Rio de Janeiro durante 2018.

Además, desde 2018 participa como docente en diferentes programas educativos del Museo Guggenheim Bilbao. Actualmente colabora en la gestión de contenidos y programación de Zas Kultur Espazioa, espacio independiente dedicado al arte contemporáneo de Vitoria-Gasteiz, así como en el congreso anual de artistas emergentes de País Vasco y Navarra, “Inmersiones”.

VITORIA
GASTEIZ
green capital



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala